

KULTUR PROGRAMAZIOA

ZER ETA NOLA PROGRAMATZEN DA EUSKAL HERRIAN?



LARRUN #315

EXCEL TAULEN MENPEKO KULTUR POLITIKAK?

EGILEA | **GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA**

AZALA | **IÑAKI LANDA** MAHAI-INGURUKO ARGAZKIAK | **DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA**

Nork erabakitzen du zein antzezlan eskainiko den hiru hilabete barru herriko antzokian? Zein kontzertu antolatuko diren herriko jaietan? Edo zein film helduko den aretora datorren asteburuan? Aurrekontu eta azpiegitura publikoaz ari bagara, normalena da horren atzean kultur teknikaria edo programatzailea egotea. Udal langilea, kasurik gehienetan. Aurpegia ematen duen zinegotziaren azpitik dagoena. Nola hartzen ditu erabakiak? Zein irizpideren arabera? Eta udalaz gaindi, inork gainbegiratzen al ditu?

Gozoki bat bailitzan onartu dute solaserako gonbita lau lagunek. Amagoia Gurruixaga, Ione Josie, Mikel Ayllon eta Miren Tirapu elkartu ditugu Euskal Herriko kultur programazioaz hitz egiteko: erabakiak nola hartzen diren ezagutzeko, artistengan zer nolako eragina duen ikusteko, eta ber gauza publikoari dagokionez ere. Euskal Herriak ez du kultur plan nazional eta integralik, eta nabari da emaitzan. Jakinda ere mundua ez genuela konponduko, bi ordu eta erdiko solasaldia goxo eta interesgarri joan da Donostiako Aratz erretegian.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA - ARGIAren 2.952 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAIALEN ARANA

2026eko otsailaren 22a



EZKER-ESKUI: Mikel Ayllon, Miren Tirapu, Amagoia Gurrutxaga eta Ione Josie, Donostiako Ibaeta auzoan.

Mahaikideak



**AMAGOIA
GURRUTXAGA URANGA**

Azpeitiaren parte den Aratz-Matxinbentan (Gipuzkoa) jaioa 1971n. Kazetaria da. Lanartea Euskararen Langile Profesionalen Elkarteko koordinatzailea da 2021etik, elkartearen sorreratik. Euskaraz ari diren kultur sortzaile profesionalen lan baldintzak hobetzea dute helburu.



**IONE
JOSIE DANJOU**

Donibane Lohizunen (Lapurdi) sortua 1976an. Frantses Literaturan lizentziatua da eta Euskal Ikasketetan masterra du. Bi hamarkadaz ari da euskalgintzaren bulego lanean: Euskal Konfederazioan, Hizkuntz Eskubideen Behatokia eta Euskal Hirigune Elkargoan, besteak beste. Egun, Urruñako euskara zerbitzuan ari da.



**MIKEL
AYLLON CORRAL**

Laudion (Araba) jaioa 1980an, Bilbon bizi da. Idazlea eta antzerkilaria ofizioz, eta kaleko antzerkiaren inguruko doktore-tesia egiten ari da EHU. Piszifaktoria Ideien Laborategia konpainia esperimentaleko sortzaileetakoa da. Eusko Jaurlaritzaren Urruzuno gazte literatur sariaren bueltan ere badabil.



**MIREN
TIRAPU GOIKOETXEA**

Iruñean sortua 1981ean, Leitzan (Nafarroa) bizi da. Ikasketak ditu arte dramatikoan, kultur eta gizarte antropologian eta kultur kudeaketan. Beheko Larraine antzerki konpainiaren sortzailea da. Egun, Leitzako kultur teknikaria ere bada.

■ **Eztabaidagai izaten da herri, auzo, areto edota espazio bateko kultur programazioa. Ez dakit egokia den dikotomia batean planteatzea: “ondo” edo “gaizki” programatzen da. Baina askotan halaxe esaten da, halako herritan “ondo” egiten dela, eta bestekoan “gaizki”. Zer esango zenukete dela “ondo” edo “gaizki” programatzea?**

IONE JOSIE: Niretzat, programatzen delarik helburu bat dugu, hots, programazioaren helburuak du garrantzia. Guk [Urruñan] badugu kultur egitasmo bat, plan bat, sortu duguna herritarrekin kontzertazioan, galdetegi bidez. Duela hiru urte, gure herrian kultur dinamika apala zen, ez zen kultur zerbitzurik. Herritarren iritziak bilduta identifikatu dira beharrak, eta horiei erantzuten saiatzen gara. Niretzat kulturak izpirituak ireki behar ditu, zubiak sortu, lotura soziala bultzatu, mundua begiratzeko beste molde batzuk eskaini, eta euskarazko sorkuntza ere sustatu behar du. Euskaraz programatzeak arnaguneak sortzeko aukera eskaintzen dit, euskara plazara eramanda. Hortaz, “ongi” edo “gaizki” baino, herriko etxea garen aldetik, herritarren behar eta nahiei erantzun behar diegu, ditugun baliabideekin. Urruñan ez dugu antzokirik; karrika dugu batez ere, eta gela txikiak.

MIKEL AYLLON: Hasteko, eskertzen dizut mahai inguruaren abiapuntua horixe izatea, eta ez sektore honen prekarietatea, elkartzen garenotan hortik hasten baikara hizketan. Prekarioa da kultura, hala da, baina uste dut, sorgin gurpil batean egonda, konponbidea gogoeta honetan dagoela: zein leku izan behar duen kulturak gure gizartean, zein espazio hartu behar dituen, eta nola.

Gustatu zait Ionek [Josie] esan duena. Niretzat ere kultur programazio ona da gizartearen beharrei erantzuten diona, norabide eta ikus-

pegi bat duena, helburu batzuk dituen, eta betiere herritarrekin eta komunitatearekin sortzen dena.

MIREN TIRAPU: Ekarpen bat egingo dut. “Ondo” edo “gaizki” baino, nik bai identifikatzen dut “gaizki” egiten denean. Gaizki egiten da agenda bat betetzeko helburu hutsa aurreikusten denean. Argi dago herri bakoitzak bere idiosinkrasiak dituela, bere helburuak, bere politikak, batik bat hizkuntz politikak, eta horren arabera egin behar da programazio bat kohesioa eta herri lotura sustatzeko, aisialditik harago eramango den programazioa eskaintzeko, arimak eta buruak astintzeko... Askotan ikusten dira agenda betetzea beste helbururik ez duten jarduerak, gutxiengoak konplitzeko *check*-ak egiten dituzten programatzaileak. Ez zaio arretarik jartzen zein helburu zehatzekin ari garen programatzen, edo erreparatzen zaion kasuetan ere, bigarren maila batean gelditzen da.

AYLLON: Hemengo kultur politikak, eta pentsatzen dut leku askotan ere horrela dela, gobernatzen dira Excel dokumentu batetik. *Check* eta *check* egitea da. Drama handi bat da.

TIRAPU: Hori hala da, eta arazo potoloa dago. Programatzailea baldin bazara, programazioa ikustera joan behar duzu. Hor inbertitu behar da denbora, eta ez ordenagailu baten atzean administrari lanak egiten. Hor sartzen gara beste meloi batean: zein izan behar den teknikari edo programatzaile baten profila. Herri bakoitzak bereak ditu, eta desadostasun handiak daude. Baina nire ustez, programazio baten arduraduz, ikustera joan behar duzu. Eta ekarpenak egin, gauza berriak ekarri, interesak eta dinamikak sortu... Horretarako beste plaza batzuetara ere joan behar duzu. Horrek izan beharko luke lan jardunaren zatirik handiena, baina zoritxarrez ez da horrela. Garrantzi gutxi ematen zaio, eta amaitzen da ia dena

Excel batetik egiten. Administrazio lanak geroz eta denbora gehiago hartzen duelako, hein handi batean.

AMAGOIA GURRUTXAGA: Hor bat egiten duzue kultur programatzaile eta teknikariek artistekin: gero eta erraldoiagoa eta gero eta astunagoa da burokratizazioaren harlauza, eta eragina du bai artistengan eta bai zuongan. Lanartean aritu izan gara lansaioetan UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kultur teknikariek, eta askotan azpimarratu digute hori, gero eta denbora gutxiago dutela beraien lana behar bezala egiteko, kultur gileak zer proposatzen ari diren ikusteko. Hitz egin digute ere kontu-hartzaileen eta idazkarien izugarritzko botereaz, hau da, dena, baita grapagailu bat erosteko ere, haiek konpultsatuta eta baimendu behar dutela. Hortaz, askoz ere mugatuago ikusten dute haien burua.

Galderara itzulita, ni ere ados nago ezin dela “ondo” edo “gaizki” terminoetan hitz egin, baizik eta “zertarako” dela erantzun beharreko galdera. Mahai honen bueltan, Ione [Josie] eta Miren [Tirapu], zuek zarete jardun publikoan ari zareten pertsonak. Helburuak oso difarentea behar luke izan nire ustez, *a priori* behintzat, zuenak eta areto pribatu bat daukanarenak. Areto horren jabeak ere maiteko du kultura, ziur, baina ardura diferentzia handia dago. Asko ari gara ikusten erakunde publikoak enpresei esleitzen ari direla kultur programazioa eta aretoen kudeaketa. Horrek izugarritzko kaltea eragiten du, gero eta gehiagotan baitirudi erakundeek beren ardura soziala betetzat ematen dutela. Batzuek bai, ganorazko baldintzak eta eskakizunak ezartzen dizkiete esleipena jasotako enpresari, baina askok ez. Bilbon, adibidez, nabarmena da Campos Eliseos antzokiarekin gertatzen dena: jabetza publikoa da, eta kudeaketa enpresa pribatu bati esleituta dago.

Iazko martxotik ekainerako datuak bildu ditugu, eta argigarria da: kultur eskaintza ia erabat gaztelaniaz izan zen.

Horrez gain, publikoak diren kultur kudeatzaile geroz eta gehiago ari dira arlo pribatuko mentalitatearekin lanean, gero eta gehiagotan audientziei-eta begira, errentagarritasun ekonomikoa helburu. Erakunde publiko baten helburuak ezin du izan pribatu baten berdina. Ardura soziala duelako. Eta ardura sozialaren ikuspegian sartzen da hizkuntzaren kontua. Hizkuntza gutxitu batean egiten den kultura daukagunez, ezinbestekoa da horri zentralitatea ematea kultur progra-

mazioan, leku bat ematea eta leku hori betetzen dela ziurtatzea. Eta oraingoz ez da egiten. Badakit UE-MAko udalerrietan badela zehar-leerro moduan hizkuntza kontuan hartzeko aldagaia, baina orokorrean ari naiz.

JOSIE: Gure kasuan ez dago kuotari loturiko ezer, ez Urruñan eta ez Ipar Euskal Herrian. Nahi nuke horretara iritsi, baina ez gaude horretan. Antzoki handietan, Baionan eta Miarritzen esaterako, euskara oso-oso gutxi entzuten da. Donibane Lohizunen ere arras gutxi. Alta, euskaraz programatzen duzularik, betetzen duzu antzokia. Errealitatea da. Bada galde bat, baina ez da interesatzen.

■ **Kultur ekintzak programatzen dituztenak asko dira. Izan daitezke gaztetxetako asanbladak, asmo zehatzak dituzten kolektibo konkretuak, auzo elkarteak, jarraikortasunez edo puntualki egiten dutenak, antzoki eta musika aretoak, pribatuak zein publikoak... Nagusiki, hala ere, gehien programatzen dutenak tokiko erakunde publikoak dira, udalak kasu askotan. Ione eta Mirren, zuok kasu honetan, Urruñan eta Leitzañan. Nola funtzionatzen duzue? Baduzue jarraibiderik, araurik? Nola erabakitzen da, demagun, zein antzerki konpainia ekarriko den herrira, noiz**



taularatuko den, eta zer egingo den lau hilabete barru?

JOSIE: Urruñan 11.000 biztanle gara, herri txiki moduan bizi gara. Azken urteotan, gure borondatez, ekimen kultural guztietan euskara ari gara txertatzen, argiki zehaztua baitugu bai herriko euskara planean, baita kultur egitasmoan ere, elkarrekin osagarri izango direla bi hizkuntzak.

Horrez gain, errango nuke premiazkoa dela tokiko eragileekin lan egitea. Herriko etxe batek ez du herriko kultur elkarten lana ordezkatu behar. Gu hor gara laguntzeko teknikoki, azpiegitura aldetik ere bai posible bada, eta diruz ere bai, aitzinkontu oso txikia dugun arren. Niretzat, elkarlana da gakoa. Elkarlanari esker, saretzeari esker, dinamika bat sortzen da herrian. Gau Beltza aipa daiteke: herriko etxeak gaualdiaren antolaketan parte hartzen du herriko elkarten ondoan, bere ekarpenak egiten dizkio programazioari, baina gero itzalean gelditzen da. Gisa berean gertatzen da elkarteek antolatu ditzaketen beste gertakari batzuetan ere. Herriko etxea hauskorra da, hurrengo agintaldiak dena alda baitezake. Baina erregulariki herri mailan antolaturiko ekimen horiek gelditu egingo dira, hala uste dugu.

Bestalde, Euskal Hirigune Elkar-goak badu bere kultur politika, baina euskara atal txiki bat da, euskal kulturarako aitzinkontu aldetik ere oso eskas dabil, eta, hortaz, herri bakoitzak du bere plana eta aitzinkontua.

TIRAPU: Leitzan, duela lau urte inguru sortu zen kultur teknikariaren figura. Beti egon da mugimendu handia herrian, eskaintza oso zabal eta aberatsa, baina beti eragileen esku egon da. Kontua da areto zaharra berri egin zela, besteak beste Nafarroako Antzokien Sarean sartzeko, eta bertako jarduna kudeatzeko sortu zen lanpostua. Ni

ere ez nago, inondik ere, eragileak ordezkatzeko. Beste profil bateko eragilea naiz. Batetik, Kultura koordinatzailea. Eta bestetik, aretoko programatzaile profesionala. Helburu zehatz batzuk lortzea da nire helburua. Horretarako, programazio finko eta iraunkorra ipini, eskaintza berria sortu, publiko berria erakarri, eta elkarteei baliabideak erraztea da nire eginkizuna, posible den heinean.



“HONEK GUZTIAK EZ DIO KULTUR POLITIKA BATI ERANTZUTEN, BAIZIK ETA TURISMO POLITIKA BATI”

MIKEL AYLLON

Kultur arloan, beste lanpostuetan gertatzen ez den bezala, ez dago formakuntza espezifikorik edo espezializatorik. Puntuazio bidezko lan deialdi bidez osatzen da lanpostua, eta nire kasuan, nire ibilbideak ematen dit kulturarekiko eta lanpostu honekiko sentsibilitatea. Sor-kuntzatik nator, antzerkitik. Hogei urte daramatzat horretan. Lanpostu honetatik, udaleko irizpide politikoak jarraituta, udal programazioa osatzen dut. Baina herriko aretoko egitaraua ez du udalak soilik betetzen, baizik eta herritarrek eta eragileek ere osatzen dute, eta hor, koordinatzaile gisa aritzen naiz. Na-

farroako plaza euskaldunenetakoa da Leitzakoa, eta erreferente izatea bilatzen dugu. Ez da zalantzan jar-tzen: lehentasuna euskal sortzai-leek dute. Leitzako plaza goxoki bat da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik eta Ipar Euskal Herritik datozen antzerki konpainia euskaldunentzat, Nafarroara sartzeko ate bat delako; efektu bat izaten ari dela ikusten ari gara.

Irizpide horiek pertsonalki zeuk jarritakoak dira, ezta?

TIRAPU: Politikoak ez, noski, baina bestelakoak bai. Hori da nire lana. Herrian zer eskaini dezakedan goxotasunez aztertzen dut, herritarrekin hitz eginda. Joan zaitezke beste herri batera, eta bakoitzak bere jarduteko modua duela ikusiko duzu. Arazorik potoloena da ez dugula kultur plan zehatzik eta bateraturik. **GURRUTXAGA:** Ez dago kultur politikarik, oro har, integrala dena. Eta dagoen kultur politika ez da uztartzen hizkuntza-politikarekin. Erreparatu besterik ez dago gure kultur paisaiari: areto eta hedabide publiko zein pribatu bezala, eskoletako materialean zein korridoreetan, sare sozialetan... zer kultur erreferente agertzen zaizkigun behin eta berriz, eta zeintzuk ez, ezer ez da neutroa.

AYLLON: Askotan, antzerki konpainiei egiten digute halako pase moduko bat: jartzen dizkigute parean kultur programatzaile mordo bat eta saldu behar diegu proiektua. Bostere-harreman apur bat arraroak sortzen dira, zeren ari zaio pertsona prekario bat azalpenak ematen funtzionario kuadrilla bati. Nire ustez, ariketa hori egin behar da alde-rantziz. Hau da, nik entzun nahi dut zure herrian, programatzaile gisa, zer den egiten duzuna eta zer den lortu nahi duzuna. Zuek biok [Josie eta Tirapu] oraintxe azaldu diguzue. Zuek badituzue irizpideak finkatuta, baina badakit programa-

tzaile asko eta asko isilik geratuko lirakeela jakin gabe azaltzen zein den bere herriko kultur programazio politika. Ez naiz ari hau proposatzen isilik eta barregarri ikusi nahi ditudalako, ezta gutxiago ere, bai zik eta zentzua ikusten diodalako. Sortzaile gisa jakin behar dut zer bilatzen ari zaren, nola ikusten duzun zure herria, eta publikoa nola erakarri nahi duzun. Elkarlanean aritu behar dugu. Eta agian nire lanak ez dizu balio bilatzen ari zaren horretarako. Nik ez dut plaza guztietan egon nahi segun zein lanekin. Batez ere kalean gertatzen da askotan: ikuskizun intimista bat prestatu duzu, eta programatu zaituzte jaietarako herriko plazan. Programatzaileak *check*-a berdin-berdin egingo du Excel taulan, baina ni nora demontre noa ikuskizun lasai batekin herriko jaiak direnean.

Anekdotak bat kontatuko dut. Lehengo batean, herri batean egiten den kaleko jaialdi handi bateko programatzailearekin hizketan, aurkeztu nion gure proiektua, eta esan zidan oso ondo zetorkiola baina ez zeukala lekurik, Espainiako Estatuko zirkuitu batean sartuta da-

goelako, hortik programatu behar zituelako gutxienez bost emankizun, beste zirkuitu batetik beste ez dakit zenbat saio, eta bestetik beste hainbat. Ja ez zeukan lekurik. *Check*-ak berriro. Benetan ondo jakin gabe zein emanaldi ziren, batere interesatu gabe, *check* eta konpromiso kontuengatik, jaialdiko kartela beteta... Baina zer helburu ditu zure jaialdiak? Zer eskaini nahi duzu?

TIRAPU: Arazo oso larria da...

AYLLON: Iparraldean ere imajinatzen dut, aipatu duzulako Ione [Josie], Frantziako Estatuko kultur sareetan sartuta zaudetela. Hegoaldean ikaragarria da Espainiako Estatuko sareena: udalerrri handi samar guztiak horietan sartuta daude, eta ekarri ahal dituzte Espainiako antzerki taldeak oso-oso merke, Espainiako Kultura Ministerioak pagatuta. Aurrekontu horiekin hemengo konpainien hamaika saio programatu litezke.

TIRAPU: Ekonomia planteamendu hutsa da. Horregatik diot ura eta olio bezala direla kultura eta administrazioa. Ikuspegi ekonomikotik begiratuta, kulturen ez dago onurarik, ez badator behintzat irabazirik

kutxatik edo leihatilatik. Onurak dator beste nonbaitetik. Espiritualak dira, mentalak, komunitarioak. Ez da materiala. Eta emanaldi bakoitza hain da diferentea, areto berberean gauzatu arren... Emanaldi bakoitza bakarra da, eta norberak bere modura esperimintatzen du.

Horregatik, ezin du berebiziko garrantzia hartu saltzea aurreikusiten den sarrera kopuruak. Eta apustuak egin behar dira: eman aukerak batari eta besteari, batez ere herriko eta inguruko sortzaileei. Ni beste aldean ere banago, orain antzezlan berria idazten ari naiz, eta nire buruari esaten diot: non demontre saldu behar dut nire emanaldia? Zeren nik ez dut nire sorkuntza egokitu nahi salmentara; inork ez du nahi.

JOSIE: Gu, segur aski, estralurtarrak gara zuen aldean, behar bada ez hain profesional [barre egin du]. Ipar Euskal Herrian, Baionak eta beste herri batzuek adibidez, Frantziako Kultur Ministerioaren antzerki sarearekin hitzarmenak dituzte, eta horien bitartez programatzen da frantses antzerkia. Horrek hertsadurak sortzen ditu. Urruñan ez. Urruñan, programa-



“GEROZ ETA KULTUR KUDEATZAILE GEHIAGO ARI DIRA ARLO PRIBATUKO MENTALITATEAREKIN LANEAN”

AMAGOIA GURRUTXAGA





**“HERRIKO ETXEA
HAUSKORRA DA,
HURRENGO AGINTALDIAK
DENA ALDA BAITEZAKE”**

IONE JOSIE



zioa osatzeko hainbat modu ditugu. Gehienetan, zuzenean artistengana jotzen dugu, askotan EKE Euskal Kultur Erakundeak proposatzen duen *Ibilki* dispositiboaren edo bere kultur agendaren bidez. Baina geroz eta gehiago, artistek euren kontaktatzen gaituzte. Horrez gain, saiatzen gara ere konpainia ezagunen pean herriko artistak sustatzen. Esaterako, *Miñan* antzez-lana programatu genuen azaroan, eta emanaldia aitzin, herriko antzerki eskolari proposatu genion Palestinari buruzko errezitaldi bat egitea, berriki landua zutena. Molde bat da ere oreka mantentzeko emanaldi txiki eta handien artean, izan amateurrak edo profesionalak. Orogen buru, guk ditugu programazioak proposatzen eta hautetsiek segitzen gaituzte; baina haiek dute azken hitza.

Aitzinkontuarena aipatu duzue, eta esan nahiko nuke: gurea oso apala da. Frantses Estatuak bizi duen krisi ekonomikoaren eraginez, herriko etxeetako aurrekontuak apaltzen ari dira. Murrizketak pairatzen dituen lehen sektorea, orokorrean, kultura da. Euskarak

ere bai, baina kulturak are gehiago galdu du. Apaltze horiei aurre egiteko, baina ez soilik, elkarlana bultzatzen da zerbitzuen artean. Bestalde, euskarazko sorkuntzak hedatzeko bi dispositibo badira Ipar Euskal Herrian. Lehena, jadanik aipatu dugun EKEk kudeatzen duen *Ibilki* dispositiboa da; ikusgarriaren aurrekontuaren %30 beregain hartzen du EKEk. Bestea, Euskal Hirigune Elkargoaren laguntza da. Ikusgarrien aurrekontuaren %50 beregain hartzen du, baina herriko etxeak ez, baizik eta artistek egin behar dute eskaera. Esan behar da ere Ipar Euskal Herrian euskaraz sortzen duten artisten sarea murrizta dela, eta beraz, euskaraz egiten den guztia sustatzen saiatzen gara. Eta urririk eskaintzen ditugu ikusgarriak, kultura denentzat irisgarri izan behar dela uste dugulako. Sarrera ez dadila blokeo bat izan, nagusiki, baina baita ere diru publikoz antolatu delako.

TIRAPU: Esan duzu ez dakizula profesionalki ari zareten edo ez, eta niretzat, profesionalki jokatzera zerbait baldin bada, lehen aipatu dituzun helburuekin koherente izatea da.

Kultur teknikarien funtzionamenduaz aipaturiko guztiak nola eta zertan eragiten du artistengan? Excel taulak aipatu dituzue, kontu-hartzaileak, mundu oso “profesionala” dela, burokrazia...

AYLLON: Profesionalizazioarena da bere garaian ondo sartu ziguten gol bat. Kultura gizarte mugimendutik zetorren, eta instituzioengana heldu zenean, eskatu ziguten enpresak sortzeko. Horixe omen zen profesionalizatzea. Enpresa ez bazara, antza, ez zara profesionala. Eztabaida hori mahai gainean dago orain ere. Gure sektorean ikusten dut polizia lana egiten dugula askotan, ez dakit nor ez delako ari enpresa gisa fakturatzen, baizik eta ez dakit nola. Batek esaten zidan: “Eskatu behar zaio administrazioari kontrolatu dezala hau gehiago”. Gehiago? Administrazioak hileroko hamar dokumentu eskatzen badizkit, hamaika eskatzea nahi al dugu? Ez dauka inolako zentzurik. Irentsi dugu amarru hau guztia.

GURRUTXAGA: Antzerkiari buruz ari gara oro har, baina programazioa ez da bakarrik antzerkiarena. Musika da gehien programatzen dena,



**“MIÑAN IKUSTERA
GUAY, ZETAK IKUSTERA
GUAY, BAINA HORREKIN
BAKARRIK ZULORA
GOAZ”**

MIKEL AYLLON

eta ikaragarria da zenbat diru xahutzen den musikari espainolak edo amerikarrak ekartzen, eta zer nolako xuhurrak izaten diren bertakoeekin. Gauza asko programatzen dira ere literatur arlokoak herri guztietan, eta beste diziplina askotakoak.

AYLLON: Bada beste figura makur eta ilun bat ere: banatzaileak. Musikan, adibidez, nabarmena da *management* enpresena. Udalei saltzen dizkiete pakete osoak.

GURRUTXAGA: Eta geroz eta gehiago, kultur ekitaldiak programatzen dituzte kulturakoak ez diren sailek. Turismo sailetatik, adibidez. Edo “festak” esaten zaion horretatik.

AYLLON: Herri askotan, jaietan bakarrik programatzen da kultura. Jaietan egiten dituzte kontzertuak, antzerkiak kalean, eta urte osoan ezer gutxi gehiago.

GURRUTXAGA: Eusko Jaurlaritzaren *Kulturklik* webgunearen 2024ko datuak hartuta, EITBk erreportajea egin zuen. Hauxe titulua: ekitaldi

gehienak udalerrri gutxi batzuetan pilotzen dira, herri jendetsuenetan pilotatu ere. Bilbok, Donostiak eta Gasteizek hartu zituzten ekintzen ia erdia. Solasaldi honen hasierara itzuliko naiz: ekitaldi horiek zein helbururekin programatu dira? Hiriburuetan dauden helburuak, zenbat eta handiago izan hiria, gero eta lotuago daude turismoari. Beste lekuetan baino askoz ere diru gehiago dago hiri handietan, eta azpiegitura gehienak ere han daude. Hortaz: zer ardura edo funtzio sozial eskatu behar diegu erakunde publikoei programazioari begira?

AYLLON: Duela gutxi hitz egin nuen Bartzelonako antzerki konpainia batekin, eta kexu ziren TNC [Teatre Nacional de Catalunya; Kataluniarako Antzoki Nazionala] institutuak gehiegi programatzen duela hirian, eta oso gutxi landa eremuan. Esaten nion berari: nahiko nuke nik ere norbait izan nire edo gure kexak helarazteko. Guk ez daukagu nori

kexatu. Zeren honek guztiak ez dio kultur politika bati erantzuten, baizik eta turismo politika bati, edo politika ekonomiko bati.

JOSIE: Lehentasunak non diren, ezta? Hitzun gutxirekin Ipar Euskal Herrian, nabarmena da hiri handietan nola programatzen diren Frantzia mailako artistak. Eta euskaraz ez, tarteka soilik, nahiz badakiten antzokia bete egiten dela euskarazko artistekin ere. Adibidez, Axut konpainiaren *Miñan* antzezlanak aldiro egin ditu 300n inguru ikusle, ondoko herrietan eta bi asteko tartean. Alegia, publikoa egon badagoela.

Baina ez da interesatzen...

AYLLON: Ez daukagu mekanismoirik hori sortzeko ere, gurea bultzatzeko eta gure erreferenteak sortzeko. Antzerkian, adibidez, desagertu egin dira konpainia egoiliarak, ez dago antzerki egonaldirik. Norbait entzun nion behin: hiriburuetak antzokiak dira ospitaleak, eta herrietakoak anbulatorioak. Zenbat denbora egoten dira irekita anbulatorioak? Astegunetan bai, normalean. Eta antzokiak? Zenbat orduz daukagu irekita gure antzokiak?



**“URA ETA OLIOA
BEZALA DIRA KULTURA
ETA ADMINISTRAZIOA”**

MIREN TIRAPU

Oso-oso ordu gutxi. Itxita daude eta barruan ezer gabe. Leku askotan, gainera, herriko eragile batek eskatzen badu erabili nahi duela ekintza bat antolatzeko, ahaztu zaitez! Etorri behar baitu azpikontrataturako langile batek atea zabaltzera, argiak pizteagatik pagatu behar da hainbeste... Ez diozu ematen lekua zure herriko jendeari hori erabiltzeko. Hori erabiliko badu baldintza hobeetan sortuko du, ez da dudarik, eta emanaldi hobea egingo du gero. Ez dut egin nahi espektakuluaren aldeko apologia, baina galdera da: nork famatuko ditu gure proposamen artistikoak, paso egiten baldin badugu gure proposamenak programatzeaz eta sorkuntzarako espazioak eskaintzeaz?

TIRAPU: Ezinezkoa da kultura aurrera eramatea soilik administrazioaren prismatik jardunda. Gure kasuan, Leitzan, sala bakarreko kultur etxea daukagu, antzoki hutsa dena. Erreserba egin eta giltza ematen zaizu. Prezioak diferenteak dira: herrikoa bazara, ez duzu deus ordaintzen. Kanpokoa bazara, bai. Baina beti bila daiteke modua. Leitzan, ordea, ez daukagu non sartu egonaldi batera etorriko lirakeen artistak. Ez daukagu hitzarmenik landetxeekin. Antzokia utz diezaie-



kegu, baina lotarako lekurik ez. Lanpostu honetan hasi nintzenetik haxe izan da nire erronka handienetakoa... Bai, egia da, konpainia askok ez dute non entseatu.

JOSIE: Iparraldean antzoki handiak badira, baina ez ainitz. Hendaian bada espazio bat, Luhuson ere bai... Urruñan, herriko etxeak duela hiru urte erosi zuen posta enpresarena zen udaleku moduan erabiltzen zen leku bat, kasik bi mila hektareakoa, sekulakoa: zortzi eraikin, eremu zabal eta ederra, pixka bat heritik kanpo baina ez sobera. Lekua erosi zen, ezin baitzen aukera galtzen utzi; pribatura igaroko zen bestela. Orain, gaztetxea bertan atzeman daiteke, eta kulturarentzat toki bat sortuko da bertan. Kultur profesionali elkartzeko aukera emateko xedea bada, eta aldi berean, herrian kultur dinamika eta transmisioa indartzea ere bai. Interes deialdia

zabaldu zen, eta herriaren baloreekin bat egiten duten hemezortzi proiektu atxiki dira. Egonaldietarako aukerak zabalduko ditugu eraikin nagusian, eta bulego partekatuak eta tailerrak ere posible izanen dira. Beste zazpi eraikinak herriko kultur elkarteei esleituko zaizkie. Helburua da espazio zabal horretan kohesio bat sortzea, justuki kulturak gaur egun pairatzen dituen murrizketa horiei guztiei erantzuteko.

GURRUTXAGA: Mikel [Ayllon], zure iruditeria erabilita –hiriburuetako antzokiak, ospitaleak; eta herrietakoak, anbulatorioak–, begirada altxa eta, esango nuke, gure hiriburuetako antzokiak direla hartzen gaituzten estatuen anbulatorioak. Nahiz eta beraien burua abertzaleztat ikusten duten hiri horietako buruzagi politikoek, eta esaten duten ikuspegi nazional bat badutela.



**“NAFARROAKO PLAZA
EUSKALDUNENETAKOA DA
LEITZAKOA, ETA ERREFERENTE
IZATEA BILATZEN DUGU”**

MIREN TIRAPU



Geroz eta gehiago, gaur egun, hiriak nahi du logo bat izan bere burua mundura saltzeko. Hezur-haragizko bisitariak, izan emanaldietara zuzenean edo hirira bisitan doazena, dira mundu birtualeko *like*-ak bezala. Zenbat *like*, zenbat bisitari. Baina *like*-ak bezain birtuala da bisitarien kopuru hori.

AYLLON: Arazoa da kultura ez zaiola benetan inori inporta, ez ezkerrekoari eta ez eskuinekoari.

TIRAPU: Eta oso panfletarioa da dena: “Kulturan inbertitu ditugu 500.000 euro”. Baina zertarako? Eta nola? Makrofestibal batean ia dena?

GURRUTXAGA: 1997an Bilbon eraiki zen Guggenheim museoarekin batera azkartu zen prozesua. Kulturan inbertitzen zen diru publikoaren parte handi bat Guggenheimari hasi zitzaion bideratzen. Gure ekosistema honetan antzematen hasi zen murrizketa. Gero etorri zen 2008ko krisia, eta are gehiago okertu ziren gauzak. Makromuseo bat bazegoenez, makroekitaldiak egin behar ziren.

TIRAPU: Antolatzailea nor den aztertu behar da lehenbizi, irabaziak nora doazen... Baina esango nuke

gabezia ikaragarriak islatzen dituela fenomeno horrek. Erabat eredu *yankia* da ahalik eta handien egin behar hori. Baina badiotsuet: Olenzteroren etorrerarekin ere, benetan beharrezkoa da *show* handi bat muntatzea? Zer nezesidade? Zergatik ez da asto baten gaintetik menditik jaisten, gertutasunez eta maitasunez...

GURRUTXAGA: Bilbokoaz ari zara, ezta?

TIRAPU: Adibidez.

AYLLON: Gauza denak, gainera, gero eta handiagoak nahi ditugu. Herri handi bateko programatzaile batek esaten zidan: “Duela bi urte Zetak programatu nuen herriko aretoa eta ez zen inor etorri. Eta begira orain”. Musikarekin oso agerikoa da. Zirkuitu hori hiltzen ari da ez delako egon musikaren zirkuitu publiko bat. Gaztetxe eta gune alternatiboek eutsi diote, nahiz eta gero eta gutxiago, hori ere itzaltzen ari baita. Espektakulu handiak soilik geldituko dira. Antzerkiak eta zineak, nire ustez, eusten diote herrietan antzokiak daudelako, baina uste dut geroz eta diru gutxiago izango duzuela udal txikietan, orduan eta

gehiago kontzentratuko delako udal handietan, horiek dutelako gaitasuna gauza handiak antolatzeko. Eta musikak orain bizi duen gainbehera hori gertatuko da, nire ustez, beste diziplinetan ere bai.

■ **Aipatzen zenuten erreferenteak egonaldiaren bitartez-eta sortu behar direla, tokian toki, ekitaldi ez hain handietan. Esango nuke ekitaldi handietan agian ez direla sortzen erreferenteak, baizik eta sortzen direla idoloak. Eta zalantza egiten dut ea ekitaldi handiek lortzen duten kultura bultzatzea: Nafarroa Arenara joan dena, gero, herriko antzokira gehiagotan joango ote den.**

GURRUTXAGA: Deabruaren abokatuarena egingo dut. Nik Fermin Muguruza ez dut azken urtean ikusi. Ikusi nuen duela 30-35 urte, makrojaialdi batean. Makrojaialdiak ez ditugu orain asmatu. Kontua da beste helburu batzuekin egiten direla orain jaialdi handi gehienak. Problema da halako ekitaldiak kontsumo eta entretenimendu hutsera bideratzen direla era indibidualizatu batean. Statu-quoak induzituta-

ko praktika sozial-kultural bihurtu dira. Planteatu beharko litzateke ea gaur egungo makrojalidietara joaten den jendeak zer harreman duen kulturarekin, eta zehazki, euskal kulturarekin. Hor eragin beharko genuke, dinamika horiek indargabatu ahal izateko, eta pixka bat jendea-ri kokatzen laguntzeko ere bai.

AYLLON: Horra joan denak, agian, pentsatuko du ja egiten ari dela kulturaren alde. Eta agian konplututa emango du bere urteko kupoa. Zeren, ni Bilboko Arriaga antzokira noa *Miñan* ikustera, eta ikusten dut sekula antzokira joaten ez den jendea. Eta pozten naiz, gutxienez joan delako. Baina kezkatzen nau ez ote duten pentsatuko *Miñan* ikustegatik ja euskal kultura bultzatzen duela.

Orain arte hitz egin dugu administrazioaz, programatzaileez eta artistez. Baina uste dut euskal publikoaz hitz egin behar dugula ere bai. Mezu bat zabaldu behar zaio jendeari: “Aizue, *Miñan* ikustera *guay*, edo Zetak ikustera ere *guay*, baina horrekin bakarrik zulora goaz”. Euskal Herrian badaukagu gauza bat

alde, jende kontzientziaduna garela oro har. Gehiago edo gutxiago, baina hori oraindik mantentzen da. Berriz hauspotu behar da kontzientzia hori. Durangoko Azokara joatea oso ondo, baina urte osoan zure herriko liburu-dendara baldin bazoaz eta liburu bat erosten baduzu... “Hobe” esatera nindoan, baina ez: edo egiten duzu, edo pikutara goaz. Hauspotu egin behar dugu nahitaez, denok, denok baikara publikoa.

TIRAPU: Eta antolatzaileei ere esan behar zaie. Joera dago izen handiak ekartzeko, dirua xahutzeko, sarre-ara asko saltzeko eta jende pilo bat antzokian juntatzeko. Garaipen moduan hartzen da. Baina hurrengo hilabeteetan ia inor ez doa antzokira. Lana, niretzat, egunerokoan dago.

GURRUTXAGA: Ohar bat egin nahiko nuke. *Miñan* antzezlanak aipatu dugu. Fenomeno berezia da. Harrera oso ederra izan du antzezlanak, liburuak izan zuena bezalaxe. Tarteka sortzen dira horrelakoak, *Kutsidazu bidea Ixabel* izan zen moduan. Milaka eta milaka irakurle izan ditu *Miñan*-ek, eta antzokira joan den jende asko aurrez irakur-

le izan da. Antzezlanak ere milaka ikusle izan ditu. Hala eta guztiz ere, antzezlanak bideratu duen pertsona [Ander Lipus] duela bi hilabete ari zen esaten bihar bertan gasolindegian batean lana eskainiko baliote onartuko lukeela. Hori da gure neurria, gure egoera. Nik ez dakit Zetakekoak zer moduz bizi diren, baina ez dakit ere hemendik hamar urtera non egongo diren. Gasolindegian lanean, agian. Esan nahi dut: ez dira Bruce Springsteen.

■ **ETBk egin zuen urtearen errebasoan, kulturaren arloan, aipatu zen 2025ean Zetakek hainbeste kontzertu handi eman zituela, ETSk beste ez dakit zenbat, Gatiburen amaiera, Durangoko Azokako datu eta zifrak...**

Halako “gauza handiak” baino ez.

GURRUTXAGA: Gaur egun, EITB begiratuta irratian zein telebistan, hamar-hamabost kontuez jabetuko zara. Beste asko existituko ez balira bezala. EITBz ere hitz egin behar da, zeren EITBren programazioa ere kultur programazioa da. EAEko Kulturako diruen erdiak EITBk hartzen



“EITBN ERE ZEHASTU ETA BETEARAZI BEHAR DIRA GUTXIENENKO BATZUK”

AMAGOIA GURRUTXAGA





**“HEGO ETA IPAR EUSKAL
HERRIAREN ARTEAN ZUBI
ESKAS DITUGU”**

IONE JOSIE

ditu, eta herrietako kultur programazioan bezala, hor ere uste dut zehaztu eta betearazi behar direla gutxieneko batzuk, bertako herritarrek bertan ekoizten den sorkuntzaren jarraipen txukun bat egin ahal izateko lain.

AYLLON: EITBk badauka gauza on bat: bokazio nazionala duen tresna bat dela. Bokazio praktikoa, gaur egun, agian ez dauka, baina ontologikoki hala da. Eta horrelakorik ez daukagu beste arloetan. Hau da, ez daukagu zine akademia nazional bat, ezta zentro dramatiko nazional bat ere...

Halakoak behar ditugu?

AYLLON: Agian akabatu egingo nauzue, baina uste dut herrietako programatzaileei kendu egin behar zaiela haien espazioetako programazioaren %50 adibidez. Berdin zait gehiago edo gutxiago, horretan ez naiz sartuko. Uste dut %50 hori programatu behar duela Euskal Herriko zentro dramatiko nazionalak. Lehenik, jakina, zentro hori sortu behar dugu irizpide batzuen arabera. Baina uste dut kultur politika nazional eta integral bat behar

dugula, eta horrek eskatzen duela programazio politika nazional bat ere bai. Hau da, Euskal Herriak izan behar du agente moduko bat esango duena zer programatu behar den herri bakoitzeko programazioaren ehuneko handi batean.

Zergatik diot hau? Bi arrazoirengatik. Batetik, programatzailearen figura desagertzen ari delako leku batzuetan. Donostian gaude, eta jakin dut hemen gertuko udal bateko teknikari bat erretiroa hartzeaz dagoela, eta bere lanpostua amortizatu egingo dela, gastuak aurrezteko, eta kultur teknikariaren lanak egingo dituela Berdintasun arloko kontuak eta ez dakit zer gehiago kudeatzen dituen funtzionarioak. Hau da, pertsona hori ez da antzokiz antzoki ibiliko. Behar ditugu, hortaz, maila nazionalean antzokiz antzoki ibiliko diren bost pertsona. Gero, herriko programatzaileak bete dezala programazioaren beste erdia herri ikuspegiarekin.

Eta bestetik, ez dakit Nafarroan nola den, baina EAEn, Jaurlaritzak eman ditzake obra bat sortzeko dezenteko dirulaguntzak, baina gero goal ez zaitu inork programatzen.

Zenbat diru publiko galdu da horrela, ia inork ez duelako ikusi? Soluzio erraza dauka nire iritziz: programazio nazionala. Gero kexatuko gara txarto ari direlako egiten.

GURRUTXAGA: Ni ez nago ados. Noren eskuetan geldituko da zentro, institutu edota programazio nazional horren kudeaketa? Aldiroko gorabehera politikoen arabera egingo da? Hala bada, gauzak okertu daitezke are gehiago. Sekulako boterea da. Ideiarekin ados nago, Mikel [Ayllon], baina gure kontrara ere bihur daitezke.

Solasaldia borobiltzeko. Esandako guztia esanda, nondik has gaituzke lanean?

[Barre egin dute denek].

JOSIE: Badut gauza bat esateko: iruditzen zait Hego eta Ipar Euskal Herriaren artean zubiak eskas ditugula. Lehen lan gehiago egiten genuen elkarrekin. Hori hobetu behar litzateke. Eta aitzinetik errandako guztiari gehituko nioke esperimentaziorako aukera. Behar ditugu aukerak zabaldu, huts egiteko oportunitatea ukan. Eskubidea dugu ere kaka sortzeko.

AYLLON: Mezu positibo bat daukat nik. Askotan, artistaren gorputzetik, badirudi kultur programatzaileen kontra gaudela, baina ez da horrela. Sumatzen dut badaudela programatzaile nahikotxo gauza gehiago egin nahi dituztenak, jarduteko moduak aldatuta, baina Excel taulan harrapatuta daude. Badago jendea nahi duena beste eredu bat bultzatu, Hegoaldearen eta Iparraldearen arteko zubi-lanak adibidez, entzun dizkiot Bilboko programatzaile bati ideia batzuk, baina exekuzioa zaila da, hondoratuta gaudelako inertzia batzuetan eta harrapatuta kanpoko sare erraldoietan. Uste dut behar ditugula Excel euskaldun batzuk, baina batez ere beste sare batzuk, beste oinarri batzuk, eta itxaropen izpi batzuk sortu.

TIRAPU: Konplexu asko dauzkagula esango nuke, eta horiek desegin behar dira. Oxigenoa ere behar

dugu. Kultura eta artea dinamikoak dira, sorkuntza irekia da, mugimenduan dagoen zerbait; eta administrazioa zerbait hermetikoa da, itxia. Ezin dugu kultura menderatu administraziora. Hori ere desegiten ez dugun bitartean beti egongo da talka hori, besteak beste, dena prisma ekonomikotik bakarrik begiratzeko delako. Eta ez da posible. Ionek [Josie] esaten zuen bidetik: hamar lagun etorri direla antzokira? Hurrengoan izango dira hamabi. Eta hurrengoan hamalau. Ohitura eta konfiantza eduki behar dugu gure kulturaren, eta gure herrira begirala egin. Sortzaile ikaragarri onak daude, asko gaude, eta denontzako plaza egon behar da.

GURRUTXAGA: Bukatzeko, eta hobetzeko, erantsiko nuke badiugula berez tresnak, behar beste erabiltzen ez direnak, erabaki hori badagoelako hartuta nonbait, kon-

tzienteki edo inkontzienteki. EITB da tresna horietako bat, garrantzitsua gainera. Horrez gain, uste dut deseraiki behar dela munstro administratiboa. Badakit utopia dela, baina eraisketa nonbaitetik hasi behar da. Galderak ezin du izan “zer daukagu?”. Baizik eta “zer nahi dugu?”. Nahi horretan, beharko genituzke antzerkiaren institutu nazionala, letren institutu nazionala, musikarena eta beste hainbat. Eta ez daukagu. Herri honetan sail edo arlo batzuk jotzen dira estrategikotzat, eta kulturak hori egon behar du. Kulturaren inbertitu behar da, baldin eta sinesten badugu kultura estrategikoa dela. Ez badute uste estrategikoa dela, esan dezatela publikoki. Gezurrik gabe ariko gara orduan. ●



ARGIAk Bizi Baratzea sailean liburu berria kaleratu du:

BIZITZA BATEN TXATALAK

Andre bat lurrari emana

Onintza Enbeitak idatzia da. Feli Madariagaren bizipenak jaso ditu, eta horrekin batera “baserriko bizimodua, erromantizismorik gabe”.

15€